

Saharari buruzko zinema aztertuko dute Gasteizen, gaurtik hasita

Aztertuko dute nola erabiltzen den zinema identitatea eraikitzeo
• 'Un agujero en el muro' animaziozko film laburra estreinatuko dute

Beniat Alberdi Gasteiz

Hamaika ikus-entzunezko lanek erakutsi dute Mendebaldeko Saharako egoera. Baina galdera hau egin du Arabako SEADen Lagunen Elkarteak: «Nork kontatu ditu istorio horiek? Saharar herri-tarrek edo beste batzuek berari buruz? Sahararren ikuspuntua jasotzen dute?». Galdera horiei eta gehiagori erantzuteko, *Sahara begiradan* zinema mostra antolatu dute Gasteizen gaurko eta biharko, SEADen aldarrikapenaren urteurrena baliatuz. Carlos Mourek zuzendutako *Un agujero en el muro* filma (Zulo bat harresian) estreinatuko dute.

Bi ataletan banatu dute mostra. Batetik, zinematik identitatea eraikitzeo daukan erabileraz hausnarketa egingo dute, eta praktikan jarriko dute ikasitakoa. Bestetik, orain arte garatutako lanek erakutsiko dituzte bihar.

Hasierako txostena

Una brecha en el muro (Zirrikitu bat harresian) txostenak akuilu lanak eginda jaino zen *Un agujero en el muro* film laburra. «Lurralde okupatueta bizi zuten egoerari buruz galdetu zien sahararrei gazte talde batek», argitu du Carlos Moure filmaren zuzendariak. «Bertan jasotako bizipen latzak transmititzeko osatu dugu peli-

kula». Animazioa erabili dute filma egiteko. Izan ere, txostenen parte hartu zuten anonimotasuna bermatu nahi izan dute. Diasporan dauden sahararrek jarri diete ahotsa pertsonaiei. Gaur estreinatuko da, 20:00etan, Gasteizko Florida zinema aretoetan.

Horren aurretik, identitatea eraikitzeo zinematik izan dezakeen rolaz hausnartuz hasiko dute mostra, hitzaldi batekin eta mahai inguru batekin, 10:00etan, EHUren Arabako campusean. 16:00etan, SEADen aldarrikapenaren urteurrenako jaia ospatuko dute Arka plazan. Bihar, berriz, gaur ikasitakoa landuko dute.

Izar magikoaren bila

Agus Perez

Izar magiko baten bila abiatuko dira Ane eta aitaita Julian. Tira, biak bakarrik ez, haiekien batera Aneren ama eta Lur ere abiatuko direlako. Baina mundu errealeko pertsonaia hasierako biak dira, Lur trapuzko pampina delako eta ama hilda dagoelako. Amaren presentzia, ordea, nabarmena da emanaldian, eta rol garrantzitsua betetzen du Aneren ume-unibertsoan aitaitaren ostean, bera delako Ane den moduan onartzen duen bakarra. Eta hortxe dago koska, Ane fisikoki neska jaino baina mutil sentitzen delako eta nahi duen bakarra ingurukoek errealtate hori onartzea da. Eta aita? Non dago aita? Amaren heriotzaren ostean, nahikoa lan dauka bere bizitza berrosatzin alabaren burugogorkeria dirudienari ganoraz aurre egiteko, eta lanek edukiko dituzte beste guztiek ere, aitarren jokabidea hala edo nola bideratzeko.

Nahita zuzatu naiz Kepa Errastiren testuaren planteamenduan, printzipioz transexualitateari bu-

KRITIKA Antzerkia
"Lur"

Konpainia: Xake produkzioak.
Egilea: Kepa Errasti. **Zuzendaritza:** Getari Etxegarai. **Musika:** Pascal Gaigne. **Eszenografia:** Eider Ibarondo, Isabel Acosta. **Argiak:** David Alkorta. **Antzezleak:** Kepa Errasti, Nerea Gorriti, Mikel Laskurain, Erika Olaizola. **Lekua:** Bilboko Azkuna Zentroko auditorioa. **Eguna:** Otsailak 24.

ruzko lana zirudienak umeen ikuspegia bete-betean harrapatu eta nagusien emozioen maneio zaila ezin hobeto jaso duelako, sentsibilitate handiz eta batera bigunkeria barik. Gainera, ondo heldu dio sakoneko gai delikatuari eta baikortasunez zipiritindu ditu egoerak, batez ere aitaita Julian pertsonaia maitagarriaren laguntzaz.

Getari Etxegaraiaren zuzendaritza pean, oso orekatuta agertu dira

lau antzezleak, eta elkarlan bikainean jardun dute bai beren artean bai elementu eszenikoekin, taula gaineko gauzakiak ezinbestekoak izan direlako protagonistaren eta gu-guztion irudimena maila mirresgarrira igoarazteko. Alde horretatik, airtortzen dut aspaldi ez genuela hain eremu eszeniko polita, iradokitzailea, lagungarria eta erabilera askotarikoa ikusten, eta gauza apal-apalekin eraikitako gauzen artean, txalupa, amildegiaren gaineko zubia eta globo bidaiaria gogoratuko ditugu bereziki. Era berean, aipatzekoak dira argien diseinu emozionala eta Pascal Gaigneren musika, Nerea Gorriti -Aneren ama- eskuoinuz, ukelelez, kaxax eta ahotsez interpretatu duena.

Azkenik, esan beharra dago adin guztietarako dela harribitxi eszeniko hau, ez bakarrik familia erako publikoarentzat. Izan ere, gaurko emanaldian seme-alabarik gabeko ikusle heldu asko bildu dira, eta gurasoekin zetozen ume ugariak txintik esan gabe eman dute ordubeteko denbora, magiak harrapatuta. Txaloe orduan, publikoak luze, entusiastoz eta zutik txalotu du proposamena, eta denok irten gara bizipoz betearen sentsazioarekin kalera.

13

'KIMUAK 2018' KATALOGOAK JASO DITUEN SARIAK

Donostiako Zinemaldian hasi zuen ibilbidea Kimuak 2018 katalogoak, eta dagoeneko hamahiru sari jasotzen ditu hainbat jaialditan. Bihar, berriz, lehen emanaldi publikoak egingo dute Donostiako Tabakalera, 19:00etan, Tabakalera berak eta Euskadiko Filmmategiak antolatuta.

HILBERRIA



Mark Hollis. Isiltasuna langai zuen musikaria

Mikel Lizarralde

Oihartzun komertziala izan zuen lehendabizi, eta onespen kritikoa jasotzen ondoren. Talk Talk taldeak oso bide bitxia egin zuen jardunean izan zen 11 urteetan. 1980ko hamarkadaren hasierako synth-popari eta New Romantic mugimenduari lotuta hasi zuen ibilbidea, baina bide propioa egin, inguruko taldeekin zerikusi handirik ez zuen soinu batekin. Musika arrakastatsua egiten zuten, baina gerora, ordea, pausatu egin zuten beren proposamena, giroari garrantzi handiagoa

emanen. Horrek berak kritikaren laudorioak ekarri zizkien, baina publikoaren erantzuna ez zen izan hain abegikorra. Talk Talk taldeko abeslari eta hitz pertsonalen egilea izan zen Mark Hollis (Tottenham, Ingalaterra, 1955). Atzo hil zen, 64 urte zituela.

Talk Talk-en garapena etengabea izan zen. *The Party's Over* (1982) lehen diskoak, artean, garai hartako beste talde batzuekiko antzekotasunak zituen—Duran Duran—, baina *It's My Life* (1984) eta *The Colour of Spring*-ek (1986) bestelako soinu landuagoak biltzen zituzten. *Spirit of Eden* (1988) eta *Laughing Stock* (1991) azken lanek, berriz, sakondu egin zuten taldeak hartutako norabidean, eta askok jotzen dituzte urte batzuk geroago loratuko zen post-rock eszenaren aitzindari. Hollisek, nolahi ere, ez zuen inoiz ikusi bere taldea mugimendu jakin baten parte: «*It's My Life* egin genuenean, sintetizadoreen mende geunden, baina horrek ez du esan nahi synth-pop talde bat garenik. Sintetizadoreak erabili genituen alderdi ekonomikotik aukera bakarra genuelako».

Taldea desegin ostean, disko bakarra kaleratu zuen bere izenarekin, bere lanik pausatua. Isiltasunaren aldeko aldarria, inondik ere: «Beti pentsatu dut hobe dela nota bat, bi baino. Eta bi, hiru baino. Isiltasuna da langairik onena».

Euskaltzaindiaren mendeurrena kontzertu koral batekin ospatuko dute

MUSIKA • *Mende berria kantuz* kontzertua egingo dute, martxoaren 10ean, Bilboko Arriaga antzokian, Euskaltzaindiaren mendeurrenaren ospakizunen barruan, eta Bilboko Koral Elkarteak Euskeria koruak, Gernikako Gaudeamus korak, Lauko Quartet laukoteak eta Maddalen Arzallus bertsolariak parte hartuko dute. Besteak beste, Oskorri, Itoiz, Jabier Muguruza, Errobi, Ken Zazpi, Kortatu eta Benito Lertxundiren kantuen bertsoak egingo dituzte. Enrike Txurruka konpositorea arduratu da haiek moldatzeaz.

La Polla Recordesek BECeko Bizkaia Arenan joko du urriaren 19an

MUSIKA • La Polla Records taldeak Barakaldoko (Bizkaia) BECen joko du urriaren 19an, atzo Hala Bedi Irratiak jakinarazi zuenez. Bizkaia Arenan izango da kontzertua, eta 16.000 laguntzako lekua izango da. Aurreko astean hainbat sare sozialetan zabalduak mezuekin eta argazkiekin iradoki zuten taldea bueltan zela. Barakaldoko kontzertuan El Drogas ariko da aurretik.